

1. Jatekoak

Komertzio txikian janari-dendak oso garrantzitsuak izan dira eta hori dakigu janari-denda asko egon zirelako herrietan: denetariko dendak, autozerbitzuak, harategiak, arraindegiak, okindegiak eta gozotegiak, adibidez. Beraz, lan asko ematen zuten eta emakume askok egiten zuten lan bertan. Askotan jabeak ere izaten ziren. 1970etik aurrera Oñatin denda gehiago egoten hasi ziren. Zer janari-denda zeuden Oñatin XX. mendean? Zer saltzen zuten eta nola egiten zuten lan?

Ikus dezagun!



- **Barazki eta fruta-dendak**

1975etik aurrera hasiko dira irekittzen. Aurretik Oñatiko baserritarrek eramaten zituzten denetariko dendetara. Oñatin garaian garaiko fruta eta barazkiak kontsumitzen ziren. Gainera, Oñatin ekoizten zen frutatik aparte oso fruta gutxi jaten zen. 1980an Oñatiko jendea fruta gehiago jaten hasi zen eta poliki-poliki Espainiar estatuko produktuak ere iritsiko dira herrira.

Gaur egun ezagutzen ditugun fruta-denda gehienak 2000. urte inguruan sortuak dira. Denda hauen jabeak bi gizon ziren: Bernardo Zurutuza eta Jose Luis Vesga. Hala ere, dendan emakumeak dauzkate lanean. Aipatzekoa da azken 10 urtetan irekitako fruta-dendak pakistandarrek irekiak direla.



- **Harategiak**

Orokorrean harategi ia guztien jabeak gizonak ziren Oñatin. Baina 1890 eta 1900 bitartean Benita Oñate hirugihar eta olio saltzailea izan zen salbuespena, mende oso bat pasa arte. 1980tik aurrera etorri ziren Arantxa Palacin, Edurne Ayastuy eta Eva Lopez harakinak.

Harategietan saltzen zen haragia herriko eta kanpokoak zen haragi asko jaten zelako Oñatin. Gainera, jan behar ziren Oñatiko animaliak San Juan Kalen zegoen hiltegiara (matadeixara) eramaten zituzten.



- **Arrain-saltzaileak**

Talde hau oso berezia da. Kostaldeko emakumeek saltzen zuten arraina Oñatin kalerik kale. XX. mendeko bi saltzaile oroitzen dituzte herritarrek: txantxote arrasatearra eta bermeania. Horrela oihukatzen zuten: “Sardina viva! Viva!”.

Beranduago, 1960tik aurrera furgonetarekin hasi ziren etxez etxe banatzen, adibidez: Antoni Fernandez eta Angelines Pato senar-emazteek, edota Roman Moyuak eta Marcelinak.

1970. urterako kaleko salmenta amaitu zen eta merkatu zaharreko postuetara lekualdatu ziren. Ordurako kalean bazeuden 3 arraindegi ere. Baina arraindegi gehienek itxi egin behar izan zuten kaleko salmenta amaitu eta gero. Ordu-tik Fernandez arraindegiak jarraitzen du. Gainera, XXI. mendean Kresala ireki zen (Kale Zaharra).



• Okindegiak

Oñatin tradizio handiko negozioak ditugu: Eskolatxo, Irizar eta Egaña. Mende hasieran guztiak kale nagusietan zeuden eta gizonak ziren jabeak, nahiz eta salmentan emakumeak egon.

Errotak auzoetan zeuden eta auzoetan ogia egiten zen. 1920an bi emakume-izenak azaltzen dira: Petra Arregie eta Justa Galdos.

Bitxikeria moduan, Eskolatxo zergatik deitzen da horrela? Bada, mende hasieran Eskolastika izeneko emakume bat etorri zen Oñatira bere semearekin. Bere semeak Andres zuen izena eta berari Eskolatxo ezizena jarri zioten. Eta horregatik euren okindegiari Eskolatxo deitzen zaio.



• Gozogileak


Sektore honetan negozio asko egon dira mende hasieratik: txokolateixak, konfiteixak eta pastelerixak, adibidez.

Patrua Kale eta Kale Barriako izkinan Konfittero janari-denda zegoen eta Teresa Arkauz Madinagoitia gozogile eta sukaldari ezagunak txokolatea eta konfiturak egiten zituen bertan.

1937tik aurrera “Garaikoetxea kafea” izan zen herriko kafetegi dotoreenetako bat eta bertako produktu izarrak bolauak eta pastel peregrinoa izan ziren.

Aipatu behar da, nahiz eta okindegia izan, Egañan esne-opilak, bolluak eta bolauak ere egiten zituztela. Karapaixua ere bertako produktu ezagunenetarikoa bat da. Egañako Maria Luisa hasi zen Karapaixua egiten; hasieran ogizkoa zen eta ondoren gozoa.

Barkilleroa ere ezin aipatu gabe utzi. 1930ean Pedro Lopez eta Margarita Lopez senar-emazteak Kantabriatik Oñatira etorri ziren. Eurekin batera barkilloa egiteko tradizioa ekarri zuten Oñatira. Hortik euren izena: Barkillero. Oso ezaguna ziren euren Mantekazko izozkia, koreanoak, barkilloa eta bestelako gozoak. Okinen antzera, salmenta orduetatik aparte lan asko egin behar izaten zuten produktuak egiteko.



• Azokak

Saldu eta erosteko modurik ezagunenak ganadu-feria eta fruta- eta barazki-azoka ziren. XX. mendea baino lehenagotik datorren zita da feria. Oñatin zapatutan ospatzen zen eta herriko plazan izaten zen. Ganadu-feria, berriz, Santa Marina plazan egiten zen.

Oñatiko auzoetako baserritar asko saltzen ziren salerostera, baita inguruko jendea ere.

Gerraostean, Oñatiko merkatu zaharra eraiki zen eta feria horra lekualdatu zen. Orduetik aurrera asteazkenetan eta larunbat goizetan izaten zen feria. 1990. urtean geuk ezagutzen dugun azoka eraiki zen eta une horretatik aurrera, frontoi ondoko azokara joaten hasi ziren saltzaileak.



- **Edari hornitzaileak**

Oñatin ardo, likore, zerbeza eta bestelakoen 3 hornitzaile zeuden. Horietatik bakarra zen emakumea: Dolores Irazabal (1890). Denborak aurrera egin ahala (1950), herrian 5 izatera iritsi ziren, baina hortik ere bakarra zen emakumea: Josefa Busto Garcia. Gainera, hau Napparrena tabernako jabea ere bazen.



Ardo-hornitzaile nagusiak Gereta eta Ilarión Umerezen bodegak ziren.

